

Igorreko Kiñu
Gaztetxeak
bere bosgarren
urteurrena
ospatuko dau

12. orrialdea

Oier Etxebarria pelotaria binakako Promozino Mailako txapeldun

Igorrekoa profesionaletan aurten hasi dan arren, Aitor Elordigaz batera binakako txapela lortu dau bere lehenengo finalean. Martiaren 30ean jokatu eben finala, Labriten, Agirre eta Salaverriren kontra. Partidua gogorra izan zan, 20-22 emaitzak erakusten dauan moduan. 11. orrialdea



Alex Txikon
mendizale
lemoaztarra
bueltau da K2
menditik

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

315

2019ko apirilaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Klika Korrika, zure erritmora, gure erritmora

Arratian, 21:00ak aldera sartuko da 21. Korrika apirilaren 13an. Aurten, Igorretik bitan pasauko da eta ez da pasauko Bedia, Ubide eta Zeberiotik. Aste bi eskas falta diranean, 66 kilometrotatik 57tan zein alkartek eroango dauan

lekukoa zehaztuta dago. Barazar aldeko kilometroak falta dira saltzeako.

Itxaronaldia animetako, kalejirak, parrilladak eta beste hainbat ekintza antolatu ditue herrietan. Pasau ondoren be jaiak segiduko dau hainbat herritan. 8. orrialdea

Lemoatxeko batailea aztarnak kontauta

Lemoako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena* izeneko liburua argitaratu dabe. Lemoatx, Gerra Zibilar jagokonean, dagoan aztarnategirik garrantzitsuena da, eta liburuan Lemoatxen lurrazpian topauko materialak, lubakiakaz eregitako defentsa sistemea, lurpetik ateratako gorpuzkiak eta metodologia zientifikoa erabilia bildutako beste aztarnak jasoten dira. Gai honen inguruan argitaratu dan lehenengo monografia be bada.

Lemoatxen aparteko aurkikuntzak egin dira eta harrigarria bada be elementu organikoak konserbau dira. Tartean dagoz gudari baten uniformeko jaka eta txapela. Gerra Zibileko arkeologian topau diran uniformeko elementu bakar biak dira honeek. 9. orrialdea



LEMOA

Gazte Topagunea Lemoan egingo da apirilaren 19tik 22ra

Ernai eta Aitzina! ezker abertzaleko gazte erakundeak Lemoan antolatu dabe Gazte Topagunea. Ekitaldi eta tailer politiko ugari egongo dira egunotan, baita aisialdi eskaintza zabala be. Aurten Jarrai sortu zanetik 40 urte bete dira eta gazte antolakundearen historian izandakoak be egongo dira zapatuan historia horren barri emoten. Boluntarioak atondutako akanpalekua be egongo da. 5. orrialdea

ARRATIA

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformea Besarkadarako motorrak berotzen

Hainbat ekimen prestatu ditue Arratiako OEEK eta OEE Zeberio, Durangon maiatzaren 5ean egingo dan Herri Besarkada jakitera emoteko kanpaina. Mahai informatiboak ipiniko ditue Igorren eta Zeanurin, eta bideoklipa grabauko da Artean apirilaren 5ean. Zeberion, hilaren 13an herri bazkaria, jolasak eta antzerkia izango ditue, besteak beste. 7. orrialdea

IGORRE

Euskeraz irakurteko zaletasuna bultzatzeko kanpaina

Igorreko Udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, abian da aurten be Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa maiatzaren 31ra arte. Igorren, Udal liburategiak eta liburudenda bik hartuko dabe parte.

Liburutegian liburu bat hartu eta irakurri ondoren, eretxia emoten dabenak liburuak erosteko deskontu txeke bat jasoko dabe %35ekoa; bagilaren 15era arte. indarrean egongo dana.

Aurtengoa 13. edizinoa da eta irakurtearen alde atsegina azpimarratu eta liburutegi publikoak sustatu gura dabe antolatzaileak. Ekimenak liburuen salmentan be eragira izaten dau. 5. orrialdea



publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Literatura txokoa

PROLETERKA

Nerabezaroan protagonistak aita-gaz –aita eta ezezaguna– eginiko itsasbidaian, atzera begirakoa atxakiatzat hartuta, dakarsuz, italierazko idazle suitzar ospe handibako honen lumak, familiaren gorabeherak, itzelezko eta itzalezko marrazkia osatuz.

Neskatxia zan sasoiko inguruko eta senide, sarri askotan soin atalez baliatuz (begi, esku, hazpegiak...) zorrotz-zorrotz narrutuko dituz, labanaz edo azkoraz akaso, gizakiori izakera ezkorra jantzi eta urrintasun hotzez eratzeko trexur irudigile finak eurok.

Amak orduak eta orduak emongo ditu pianoa jotzen, neskatok haren eskuak maite dituela esango deusku, berba ezitzi

bakarra eleberri osoan zehar, tresnak berari zuzendu beharreko laztanak iruntziko baleuskioz lez, ama hil eta gero pianoa gela berezian gordeko dau faltan izan jakozanak berreskuratu asmoaz edo.

Hain irudi larriak gorpuztuteko esaldi laburren bidez, batzuetan berba bakarrekoa, ondo baino hobeto egituratu dau elaberria Jaeggyk, heriotzaren altsiak, zeinda azpitikoak letxe, zeharkatuko ditu liburuaren atal guztiak, txitean-pitean azaleratu eta hondar piloak eginez.

Neskatxiaren begiak personaje bakotxari ezaugarri bikotz ezkor-baikorrak erantsiko deusaz irakurleari aurkezteko unean,

gizakiok leitoki eta eguzkibegitik daukagula adierazo guran edo, Jekill doktorea eta Hide jaunaren errastu fin-fina? Berbarako: "...erakarri bai... baina gorrotoa..." batari, "...eskuzabal-tasuna eta pozoia..." besteari, "...irribarre gozoa eta goibela..." hirugarren bateri. Bizitzak eguzki sargoriak aide-dardarak ateraten dituan antzera margotzen deusku tinkobakotasuna eta zehaz-bakotasuna, gauzak seguru ez balegoz lez, euren ziurtasunean balantzaka, sendoa irudiana gure gogo lasai eta gozozalea astinduz.

Dana dala, zentzumenai zartada ederra emoteko bada be, irakurraldi bakarrean egiteko moduan berau, iturri literario oneko ura edan geinke.

Umetza Ka


Fleur Jaeggy

Itzultzaileak: Miren Iriarte eta Fernando Rey

Proleterka

Erein argitaletxea

118 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 1etik 7ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 8tik 14ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 15etik 21era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidua makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

ERETXIA

Opor honeetan, gerra krimen batzuk

Hurrengo bagilean 52 urte beteko dira Israelek Cisjordania eta Gazako Zerrendea okupau ebazanetik, Sei Eguneko Gerraren ostean. Baita legez kanpoko kokaguneen hastapenetatik be. Berrogeta hamar urte beranduago okupazioak jarraitzen deutso modu krudelean eragiten Lurralde Okupatuetan bizi diran 4,8 milioe palestinareri, bizitza seguru eta duina soilik izateko aukerea, hutsaren hurrengoa da-eta.

Estadu gehienak eta nazinoarteko erakundeak –Europar Batasunak eta Nazino Batuak– legez kanpokotzat hartu arren, israeldar agintariak 1967tik lurralde okupatuai eusteko eta biderkatzeko ahaleginak egin ditue, nazinoarteko zuzenbideari muzin eginez. Israeldar kokaguneak sendotzeak palestinar populazioaren giza eskubideen eguneroko urraketa ekarri dau, baita oinarri-oinarizko eskubideak be, desplazamentu behartuak, lurraldeen konfiskazioa, etxeak eraistea eta zirkulazino librea mugatzea, besteak beste. Horrek guztiak palestinar populazioa oinarizko eskubiderik bako bizimodu batera kondenau dau, etxebizitza eskubide barik, hezkuntza eskubide barik, lan duina izateko eskubide barik, palestinar ekonomia be kondenau ta dagoalako.

Urteak dira Amnesty Internationalek, baita giza eskubideen defendatzaile diran beste alkarte eta erakunde batzuek be, palestinar eta israeldarrak horreetako batzuk, gertaera horreek salatzzen dituala; baita giza eskubide baxotxaren urraketea be, tartean dagoz populazino zibilaren kontra egindako bonbardaketak, atxiloteta arbitrarioak, adinez txikiak inposautako zigor neurribakoak, manifestazinoen kontrako errepresinoan erabilitako indar neurribakoa eta israeldar armadearen su errealaren ondorioz eragindako heriotzak.

PALOMA ARIAS ÁLVAREZ ETA JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA

Bilboko Amnesty Internationaleko koordinatzaileak

Nazino Batuen Segurtasun Kontseiluak eta Nazino Batuen Batzar Nagusiak Israelek palestinarrai okupau eutseezan lurraldeak ez-legezkatat hartzeaz gainera, Nazinoarteko Zuzenbide Penalak gerra krimentzat daukaz Israelek lurralde okupatuetan egin dituanak, eta egunero egiten diharduana.

Mende erdia baino gehiago irauten dauan bidebakokeria historiko horri, oin turismo digitaleko hainbat enpresaren jarduerak gehitzen jakoz, Palestinar Lurralde okupatuetan atrakzinoak, bisitak eta ostatuak eskaintzen ditue. TripAdvisor, Airbnb, Expedia edo Booking.com lango konpainia ospetsuok gurago izan dabe alde batera itxi kokapen honeetan egindako edozein enpresa-ekintzak legez kanpoko egoerari eusten laguntzen deusala, eta sustatu be bai. Giza eskubideren bortxaketa nabarmen baten eta Nazinoarteko Zuzenbide Penalak gerra delitutzat dituan hainbat ekintzaren konplize bihurtu dira.

Agerikoa da nazinoen gainean dagozan erakunde eta organizazinoak abusu larri honeek saihes-teko egiten dabilzan ahaleginak alferrekoak izan dirala. Nazinoak eurak emon behar dabe aurrera pausu hori, Israelek palestinarrai indarrez okupau deutsezan lurraldeak irabazien iturria bihurtu ez daitezzen, hara doazenak eta Estaduak berak gerra krimenen konplize izan ez daitezzen.

Amnesty Internationalek abian jarri dau kanpaina bat enpresa horreen negozio ziztrin horri aurka egiteko. Trip Advisor-en zentrau da batez be, negozioirik handiena daukana da-eta, 70 establezimentu turistikogaz. Enpresa horreei gerra krimena dan negozioa egiten dabilzala jakinarazo deutse Trip Advisor-eko zuzendari nagusiari eskutitz bidalketa masiboa eginez, eta modu publikoan salatu dau. Aldi berean mundu digitalean mobiduten diran enpresa honeei jentek balorazino negatiboak emoteko eta euren aplikazinoak txarto balorau eta ezabatze eskatu da. Praktika horren kontrako sinadura bilketa bat be egin zan.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Eskeko



Beharizanak jota, kaleetan, eleizaurretan... beharrik ez eta limosnea eskatuta, jentek emondakoaz bizi danari esaten jako eskeko (eskékoa ahoskatuta). Eskale, batuan erabilia, nagusitu egin da gaur egun, gure gazteen artean batez be. Krisialdi ekonomikoak larriak diranean eskekoen kopurua asko handitzen da, zoritxarrez. Ariketa horri eskean egin edo eskean ibili deritxo. Amaituteko, adibide bat: "Aterik ate ibiltzen dira eskekoak diru-laguntza eske".

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

**Arantzazuko
jentil-harria**

Arantzazu erdian, eleizatik udaletxera bidean harrizko zubi eder bat dago, moduz ederra, baina Mari Ipiñaren esanetatik, antxina, arantzazuarrok ezin eben gauzonik egin uriolakaz. Arrati-erreka handi-handi etorreanean, harrizko zubi horren errota-ubide aldeko zatia urak eroaten eban erreka beheara, bestaldekoa ostera ez, ze bestaldean arta handi bat dago oraindo be, alozoko artea, artarra, eta hak hobeto jagoten izan dau bere alderdia bere zuztar sakonakaz. Eta, ba barriro beharlekua zubiginen, hurrengo uriolak noz etorriko bildurkilik.

Arantzazuarrok gogait eginda egozan zubigintza horregaz eta egun baten Gorbeialdeko Itzina joan ei ziran, han Supelegorren bizi ziran jentilari laguntza eske. Jentilok harrera ona egin ei eutseen, onezean joan jakiezalako, ze txarrezean, mantzinak ei ziran horreek jentilok, eta esan ei

eutseen ba ze:

-Zer dakarskuzue ba, hain estu eta larri etorteko.

-Ba, aiko, arantzazuarrok ezin dogu gauzonik egin uriolakaz. Arrati-errekako ur handiak txirran letxe eroaten deusku Arantzazuko arku eta guztizko zubi zati ederra, eta atzera konpondu behar zubia. Eta, ba, zuokana gatoz laguntza eske.

-Bueno ba, ez egizue odol txarrik egin, belea baltzago ez da egingo-eta. Zoazie zeuonera, hauxe gura kobazuloko harrateko harriztar hau eroango dogu urari tope egiteko.

-Zelan eroango dozuen baino ez da hau harriztar hau?

-Zelan? Ba, geure indarra bitarteko, ikusiko dozue.

Esan eta egin. Supelegorreko jentilok, hartu Itzinako hazduirik harako haitz edo harri endemoniño hori euren kobazuloko atakatik eta, tandaka, eroan ei eben leporik lepo Arantzazuraino. Arkudun hartzubi ondora ailegau ziranean, harriztar hori ipini eben zubia fazilen apurtan zan zerean, tramoan, zubiari uriolak kalterik egin ez egiteko moduan, zeinda parapeto lez, eta harexegaz, santo erremedio, seguru, jentilon laguntzari esker. Arantzazuarrok orduan, agradezitako, errotan ehotako gari-urunezko zorro handi bana emon eutseen eta jentil indar-tsuok, euren atzamar txikiakaz oratu, altzau lepora eta pozik joan ei ziran barriro Itzinako Supelegorrera. Arantzazuarrok eta jentilok, bitzuok pozik!

ZERTZEAN



Mundua

AINHOA MENDIA



BEGI TXINDORRA

Errukiñe kalea zan kostaldeak Gaztelara eukan bidea XVI. mendean. Hortik joiazan hainbat eta hainbat merkantzia, hain zan horrenbestekoa atzera aurrera ebilzanak ze ermitea be eregi zan. Eta, antza danez, 1525. urtean be etxe bat altzau eben. Urteetan mudejar etxea lez ezetu izan genduana. Etxe gotikoa deitzean deutsie be. Berezitasuna dauka, igeltsoz egindakoa da fatxada, lorezkoak eta landare abstraktoak daukaz motiboak. Gotiko berantiarra deitzean deutsie. Urteetan jausi beharrean egoana, barritzatu egin da. Eta oin, dauala bost mende beste harridura sortarazten dau. Ia beste bost mende barru zer dinoan...

Iban Gortazar



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbaita 900
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Eztoitz
Lehendakari Agor 22
Agortzen gurek osatzen dugu

LEMOA

Ezker Abertzaleko gazteak formakuntza politikoa izango dabe Gazte Topagunean

Ernai eta Aitzina! ezker abertzaleko gazte erakundeak

Lemoan egingo dabe Gazte Topagunea apirilaren 19tik

21era. Martiaren 25ean, Donostian izan zan aurkezpena.

Erredakzioa

Arlo politikoan, hiru ardatz jorratuko ditue: antolakuntzaren esperientzia, ezker abertzaleak historikoki euki dituan posizino politiko eta ideologikoen inguruko hausnarkeeta eta internazionalismoa. *Bulkadak gara!* ekitaldi nagusia, zapatuan izango da 20:00etatik aurrera

Aisialdiari jagokonean, eskaintza zabala egongo da; tartean, 50 talde ingururen kontzertuak. Beste batzuen artean, Su Ta Garrek, Gatibuk, Eskean Kristök, Fermin Muguruza eta Des-kontrolak, Komak edo Ana Tijoux-ek animauko dabez gauak.

Gazte Topaguneako kantua, *(H)ari gara* Eskean Kristö Arratiako taldeak sortu dau, Euskal Herriko beste musikari batzuek batera eta Izaskun Urbaneta Vinaigre de Modernas taldekoak kantetan dau. Daborduko Youtuben entzun daiteke.

Jarrai sortu zanetik 40 urte

Gazte Topagunea ez da esperientzia barria. Jarrai sortu zanetik 40 urte pasau dira eta hori oso presente egongo da Lemoako jardunaldietan. "Ahalegin berezia egingo dogu zapatuan gazte an-

tolakundean edo gazte antelakundearen ingurutik ibilitako ahalik eta kide gehien etorri daiten. Nahiz eta gazteai zuzendutako ekimen bat izan, aurreko urteetan ibilitakoai aitortza bat egin gura jakie ekitaldi nagusian. Aurrera begirako perspektibatik eta gazteai zuzenduta izango da, baina horretarako konbidautu dago jente ez hain gaztea be" azaldu deutso BEGITURI Paul Laka antolatzaileak.

Auzolana

Antolakuntzan 200 lagunetik gora dabilzala beharrean dino Lakak, baina ha-ta guzti be, boluntarioen lana ezinbestekoa dala. Aurrez aldetiko prestaketan, Lemoa eta Arratiako beste herriak emondako laguntza handia izan dala dino. Holan, barbarako, akanpalekurako egoan lekua ez egoan akanpetako moduan eta auzolan deialdiak egin eta erantzun ezin hobea izan dabe, Tallerretan, Bikandiren atzeko parte gutzia egokitzeke.

Jardunaldi egunetan be, boluntarioen laguntza ezinbestekoa izango da. Izan be, barrako txandak, mugak jagoteko txandak eta zerbitzu bereziak emoteko jentea behar izango da Gazte Topagunean.



IGORRE

Irakurri, gozatu eta oparitu martxan

Erredakzioa

Martiaren 18an hasi eta maiatzaren 31 bitartean gauzatuko da Irakurri, gozatu eta oparitu ekimenaren hamahirugarren edizioa. Ekimenak, herritarak euskerazko liburuak irakurten animauko ditu eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuko dau. Parte hartzaileak liburuak erosteko abantaila ekonomikoak izango ditue.

Kanpainearen izenak berak erakusten dauanez, hiru pausu emon behar dira parte hartzeako. Lehenengo pausua irakurtea da, euskeraz irakurtea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskerazko edozein liburu maileguan eskatu daiteke. Liburuak irakurri ondoren, Igorreko liburutegira

itzuli, eta fitxa bat bete behar da, zein izan dan irakurritako liburua esanez eta eretxia emonaz. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketaxeke emongo deutso irakurleari, hitzartutako liburu dendan erabilteko; Orrie eta Marrak dendetan hain zuzen be. Azken pausua liburu oparitzea da, lagun bateri, senide bateri edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako erosketaxekeak, euskerazko beste edozein libururen prezioaren %35 ordaintzeko aukerea emoten dau.

Horrez gain, aprila eta maiatza amaieran, liburutegi bakoitzean 30 euroko balioa daukan txeke baten zozketea egingo da, hile horretan irakurle fitxa bete dabenen artean. Txeke berezi horrek, besteak legez, euskerazko liburuak

erosteko aukerea emongo dau. Erosketa-txekeak liburu dendan erabilteko epea bagilaren 15era artekoa izango da.



Klika 21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**

Igorre
egitaraua

13
Apirilak

19:00etan **Taberna ibiltaria Gauloratik hasita. Kalejira.**

20:15ean **Kultur Etxeko plazan mokautxo eta amaiera taberna ibiltariari.**

21:49an **Denok korrikara!**

Igorre bat Korrikagaz!

www.korrika.eus

IGORRE
Danon herria
Danon aukera

euskereag
Euskeraren erabilera

ZEANURI

Jabi Campo Goicouria izango da Zeanuriko EH Bilduren alkategaia udal hauteskundeetan

Erredakzioa

Jabi Campok 64 urte ditu eta gaur egun pensionista da. Urte luzez sindikalismoan jardun dau beharginen eskubideen alde.

Barneko hauteskunde prozesuaren jarraipen batzordeak baldintza eta berme guztiak be-

teten zirala egiaztatu ostean, EH Bilduko ordezkari batek Jabi Campogaz egin eban berba eta Campok bere burua prest ikusi dau erronkeari heldu eta prozesu honetan aurrera egiteko.

Holan, bera izango da Zeanuriko EH Bilduren alkategaia maizteko udal hauteskundeetan.

ZEANURI

Startinnova programako irabazle taldean zeanuriztar bat egon da

Erredakzioa

Paule Egileor zeanuriztarra, 18 urtetik gorakoen kategorian, ekintzailetza bultzatzen dauan Startinnova programako irabazlea izan dan taldeko kidea da. Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloko bost lagunek aurkeztutako negozio ideak jaso dau saria. Amaia Ibarzabalek, Ma-

riane Oyarzabalek, Mirari Urizarrek, Oihane Ozamizek eta Paule Egileorrek sortu eban proiektua.

Familia osoari eskainitako aisialdi, formakuntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzeko proiektua aurkeztu eban Ibaizabal Ikastolako ikasle honeek, eta epaimahiak, hainbat ikastetxetako 66 taldek aurkeztutako negozio ideen artean, euren zala onena ebatzi eban.



Talde irabazlea Arantza Idigoras irakasleagaz.

DIMA

Axpe Goikoa jatetxearen jaia bere txakolina ezetuten emoteko

Erredakzioa

Axpe Goikoa jatetxeak, bere txakolina dastatzeko Txakolin Festa antolatu dau apirilaren 6rako. Herri kirolak, jantzak eta bertsolariak lagunduko dabe txakolin eta pintxo dastaketea 13:00etan. Igor Anton txirrindularia izango da bertan.

Bazkaria, bazkalaurrea eta ostea antolatu dauz egun horretarako Lamindaoko jatetxeak. Herri-kirolak eta jantzariak bazkalaurretik eta arrastian, 18:00etan, Jokaldi tal-

deagaz erromeriak girotuko dau eguna. Bazkaria be txakolinaren inguruan dago pentsauta berrogeta hamar euroko prezioan.



AREATZA

Motorzaleen topaketea

Erredakzioa

Apirilaren 6an, Arratia eta Arkotxako motor taldeak antolatuta, motorzaleak motorrez ibilbidea Arratiatik, poteoa, bazkaria eta kontzertuak izango dabez. Arratiako Motor Taldeak 20 urte beteten ditu aurten.

Topaketa hau Bizkaiko motorzaleak antolatzen dabe dozena bat urte baino gehiagotik hona, eta bertan urteko egutegia zehazten dabe. Areatzan egin zan lehenengoz holango topaketa bat.

Topalekia, Areatzako Frontoia izango da eta bertan batuko dira partaideak 11:30ean, 12:00etan ibilbideari ekiteko. Bueltan, beste ibilbide bat egingo dabe, oingoa tabernetatik zeharrekoa pintxopotea eginaz Areatzatik. Ondoren,

bazkalaurretik Moonshine Wagon taldeak kontzertua emongo dau llargi kantoian. Talde eklektiko honek, country estiloko musika tresnakaz, nekazal punk edo punk folk

deitu daiteken musika egiten dau.

Sagardotegi erako bazkaria 15:00etan izango da eta bazkalostean, 17:30ean, beste kontzertu batez gozatzeko aukera egongo da. The Priest Is Back, Judas Priesten tributo taldeak Motxo eta ugerlekuko tabernen artean joko dau, heavy metal musika ipiniz arrastia girotzeko.



Laburbira

Euskarazko film laburren XVI.zirkuitua - 2019
Martxoaren 18tik apirilaren 17ra

www.topagunea.eus/laburbira

TOKIA:
Igorreko Kultur Etxea

EGUNA: Aprilak 11, eguna

ORDUA: 20:00

ANTOLATZAILEA: Zertu Kultur Elkarteak · Igorreko Udala

ARRATIA

Artean bideoklipa grabauko dau Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeak

Aprilean hainbat ekintza antolatu ditu Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeak Arratian, Europa mailako maiatzaren 5eko ekintzara ahalik eta jente gehien batu daiten.

Erredakzioa

Holan, apirilaren 5ean, mahai informatiboak ipiniko ditue Igorren eta Zeanurin 18:00etatik aurrera, eta Arteako Herriko Bentan *Ouvrez les frontières* bideoklipa grabauko dabe 20:00etatik aurrera. Bideokliparen grabaketan parte hartzeako konbite zabala egiten dabe antolatzaileak. Hilaren 9an, Zeanurin *Ongi etorri* dokumentala proiektu eta debata egingo da. Ondoren, maiatzaren 5eko ekintza aurkeztuko dabe.

Herrien Besarkada Durangon
Europaren politika migratzailea salatzeke eta aldatuteke, Herrien Besarkada ekimena, Europa osoko herri eta urietan egitea gura dabe migratzaileen eskubi-



deak defendiduten dabezan taldeak. Hori besarkada sinbolikoori, maiatzaren 5ean izango da eguerdiko 12:00etan. Euskal Herrian, Durangoko Ezkurdi plazan izango da, eta hara ahalik eta jente gehien batu daiten, informazio eta sensibilizazio kanpaina egiten dabil Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak.

ARRATIA

Kultura desbardinak ezetuteko aukerea izango dabe umeak Gurutze Gorriaren topaketetan

Erredakzioa

Kultura desbardinak hizkuntzak, geografia, musika, jantzak... hurreratu gura deuse Gurutze Gorriakoak 7 eta 12 urte bitarteko umei, Munduari Jira Bira! izeneko programearen bitartez. Aprilaren 15, 16 eta 17an, 10:00etatik 13:30era izango dira jarduerak.

Munduari Jira Bira! programea 2015ean abiatu eban Arratian Gurutze Gorriak. Ekintzaren helburua, beste kulturari garrantzia eta balioa emotea da. "Aberastu gura doguz gure umeen begiradak, zabaldu gura doguz mugak. Askotan ezjakintasunak eta bildurak, mesprezuak eta gitxitasunak ekarten ditu" dino Idoia Zuloaga Arratiako Gurutze Gorriako Gizarte Eskuhartzeko Teknikariak.

Aurreko edizino baten, Munduari Jira Bira!n bildutako 25 ume inguruak Sahara, Txina, Bolivia eta Euskal Herriko kulturak landu ebezan. "Txina ezetuteko, Igorren bizi dan Chao konbidau genduan. Beragaz letra txinatarrak ikasi genduzan eta bakotxaren izena idazten lagundu euskun. Sahara ezetuteko Igorreko Dagna



etorri zan eta henazko tatuaje batzuk egin genduzan. Boliviako "Cuyapé" opil gozoak egiten be ikasi genduan eta amaitzeko Euskal Herriko jantza batzuk be ikasi genduzan" azaldu deutso BEGITURI Idoia Zuloagak.

Izen emotea

Izena Arratiako Gurutze Gorrian emon behar da. Atzen eguna apirilaren 11 da. Ekintza honeetan parte hartzea debalde da eta 25 ume inguruk hartzean dabe parte.

LEMOA

Jazarpenari aurre egiteko protokoloa Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak ume eta gazteak lan egiten daben erakunde eta alkarteko hezitzailei jazarpenaren gaineko ikastaroa emon eta jazarpenari aurre egiteko emon beharreko pausuak zehazten dauan protokoloa ezarri dau.

Igazko ikasturte amaieran, eskoleak, hau da hezkuntza formalak, hezkuntza ez formalean gertatzen diran bullying edo jazarpenaren gaineko kezka jakinarazo eutsan Udalari. Izan be, jazarpenari aurre egiteko hezkuntza formalak protokoloa euki arren, oin arte ez zan gauza bera gertatzen hezkuntza ez formalean. Hori dala-eta, Udalak eta Arratiako Udalen Mankomunitateko Prebentzino zerbitzuak, ume eta gazteak behar egiten daben erakundeetakoai "jazarpena zer dan heldu arazo jakie hezitzailei ikastaro batez eta gero kasu horreek identifiketan diranean jarraitu beharreko pausuak zehaztu dira" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garcia Udaleko Gizartekintza Teknikariak.

Hasikerako formakuntzan, Harrobi Futbol Taldea, Esku Pelota Elkartea eta Guraso Elkarteko hezitzaileak egon ziran.



KORRIKA

Korrika Arratian

Aprilaren 13an, 21:15ean sartuko da Korrika Arratian Lemoatik, eta Barazarretik urtengo da Otxandiora joateko. Arratiako AEK-k gure eskualdeko eta Otxandioko 66 kilometroak kudeatzen ditu: alkarteakaz berba egin, kilometroak banandu eta abar.

Erredakzioa

Korrikarako aste bi eskas falta diranean, 9 kilometro dagoz salteako, "Guztira 66 kilometro dira eta horreetatik 57 daukaguz lotuta momentuz. Falta jakuz batez be, Barazar aldekoak" azaldu deutso BEGITURI Gorka Barreneitea AEK-koak. Otxandioko aldea hutsik itxi dabe hango euskaltegikoen bitartez beteko dalako.

Herrietan eta jente gehiago egoten dan lekuetan, kilometroak "laburragoak" izaten dira, ahalik eta jente gehienaren parte hartzea izateko. Ezpabere Artean edo Areatzan, alkarte bakarrak egingo leuke kilometroa herrian. Gitxienez lekukoa alkarte bik eroan dagien saiaten dira AEK-koak.

Lekukoa eroango dauan ezau-garriak kontuan be hartzean dabez. "Erdiguneetan lehentasuna daukie udalak, umeak eta nagusiak. Ahaleginduten gara, umeak eskolatik hur eroan dagiela lekukoa, udalak udaletxetik hur...".

Ibilbidea

Korrika, Zornotzatik Arratiako helmugara 21:08an ailegetea aurreikusten da. Lekukoa, Bedia ezker abertzaleak hartuko dau han. Lemorietatik futbol zelairaino eta handik erdigunera joango da Korrika gero, tabernak eta Batzokiaren aurretik pasa eta eskolara joango da. Handik guraso alkarteak eta eskoleak eroango dabe lekukoa. Bidekurutzean Udalak hartuko dau lekukoa udaletxe aurretik pasetako. Gero, herriko alkarte batzuk hartuko dabe Igorreraino eroateko.

Igorretik bitan pasauko da. Lehenengoz, 21:49an Lemoatik eta bigarrenez, 22:56an Dimatik sartuta. Ormazabaletik aurrera, jubiladuenera helduko da. Han, jubiladuak eta Luis Iruarizaga Abesbatzakoak dira lekukoa hartzeakoak. Igorre erditik be pasauko da, eta udaletxe aurrean Udalak hartuko dau lekukoa. Gero, Dimarantza egingo dau, Batz kooperatiba aurretik pasautu.

Diman eleizarantza doan aldatatik sartuko da 22:22 aldera. "Hortik gora egiten dau eta hor ipini doguz gazteak, aldapan gora dalako. Goian, jubiladuak,



aldapan behera egiteko eta gero umeak. Plazara heldu eta umeak hartuko dabe lekukoa. Gero Udalak" dino Barrenetxeak.

Bueltan, barriro be Igorrera, ha maikak bost gitxiagotan, gitxi gorabehera. Biribilgunean Olabarrira sartuko da. Olabarritik bueltatxoa egin eta pasauko dau zubia. Hori dala-eta Korrikak 200 bat metro

egingo ditu furgoneta barik, zubitik ezin dalako pasau furgonetea. Zati horretan korrikalariak bakarrik joango dira Euskaltegiraino. Han eukiko dabe zain furgonetea.

Ondoren Arantzazura sartuko da 23:06ak aldera eta handik hiru kilometro egin ostein, kamino nazionaletik lehenengotik eta gero bide zaharretik eginda,

Arteara ailegauko da 23:16an. Arteatik Areatzara, 23:30ean sartuko da, gero Zeanurira joateko. Zeanurin, 23:45 aldera sartuko da. Herriatik pasau eta Barazarretik Otxandiorantza joko dau. Zeanuriko atzen kilometroa Ubideko herriak egingo dau ia goizaldeko ordubatean.

Bedia, Ubide eta Zeberiotik ez da pasauko, baina herri horreetakoak be parte hartuko dabe Korrikan. Esandako moduan, Korrika Arratian sartzean danean bediazarrak eroango dabe lekukoa eta urtekeran ubidezarrak. Zeberiotik Udalak Arakaldoko peajeon eroango dau lekukoa eta zeberioztar guztiak parte hartze konbidatzen ditu. Aprilaren 10ean, 08:15ean da hitzordua.

Jaigiroa herri guztietan

21. Korrikak parte hartzeako aukera ederra emongo deutso Arratiako jenteari zapatu iluntze-gauean pasetan dalako bertatik. Ha-ta guzti be, Korrika pasau aurretik egongo da zer egin herrietan eta Korrika txikiak, kalejirak eta janak animauko dabe itxaronaldia.

Holan, Arantzazun, 17:00etan egingo dabe Korrika Txiki, 18:30ean, trikipoteoa EinGO taldeagaz eta gero afari-meriendea plazan. Areatzan be 17:00etan hasiko dira umeentzako taile-rrakaz; 19:30ean Aretzako Batucakb batukada taldea herrian zehar ibiliko da, eta 22:00etan, parriladea egingo dabe plazan. Korrikaren ostein, 24:00etan,

erromeria egongo da.

Artean, plazan edo Kultur Etxean batuko dira eguraldiaren arabera, 18:00etan, *Zu eta ni sudurluze bi antzezlan* ikusteko eta 21:00etan, euskal karaokea egingo dabe Korrika hurreratu arte. Diman, 14:30ean hasiko dira Korrikaren etorrerea ospatzen herri bazkariagaz. Gero, 17:00etan, umeentzako jolasak, 18:00etan, Kitu musika taldea eta 19:30ean, txitxi-burruntzia egingo dabe Korrika pasau aurretik. Jaia ez da amaituko behin Korrika pasautu; izan be, 24:00etan txokolatea bananduko dabe eta Desore taldeak kontzertua emongo dau Abaroa Aretan.

Lemoan itxaronaldia beroketa jolasakaz beteko dabe eta ostein, 23:00etan, Beta Brothers Dj-ak egongo dira Karabie Gaztetxean. Igorren kalejirea egongo da itxaronaldia animetako; 19:00etan, Taberna ibiltaria Gau Loratik hasiko da. 20:15ean, Kultur Etxeko plazan mokautxoa jan eta amaierea emongo jako taberna ibiltariari, Korrikara joateko.

Zeanurin eguerdian hasiko dira ekitaldiak. 12:00etan, zeanurizarrak "olinpiadak" izango ditue plazan; 18:30ean, Xaiborren disko festa eta 21:00etan, Korrika afaria jubiladuenera. Korrika pasau ostein be jarraituko dau jaiak, 23:30ean, DJ-KI egongo da plazan.

Aurreko egunetan be ekitaldiak egingo dira herrietan, Korrikagaz bat egiteko.



STIHL®
eguna

LARUNBATA
APIRILAK 6
Etorri eta zure egun perfektua bizi!

GARAJE FELIPE
www.garajefelipe.stihl-tienda.es

- 📍 Garbe, 2 - Igorre
- ☎ 946 736 339
- ✉ garajefelipe@euskalnet.net
- 📍 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
- ☎ 946 309 039
- ✉ garajefelipe2@telefonica.net

LEMOATX

Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena liburua argitaratu dabe

Lemoako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek, Lemoatxeko lubakiak berreskuratzeko egindako ikerketa arkeologiko sakona bilduten dau liburuak. Gerra Zibilari jagokonean, Lemoatx dagoan aztarnategirik garrantzitsuena da, eta liburuan, lurrazpian topautako materialak, lubakiakaz eregitako defenza sistema, lurpetik ateratako gorpuzkiak eta metodologia zientifikoa erabilia bildutako beste aztarnak jasoten dira, gai honen inguruko lehenengo monografia osotuz.



Erredakzioa

2011n Lemoako Udalak Memoria Historikoa berreskuratzeko prozesua abian jarri eban ikuspegi global eta integratzaile batez, eta Lemoatxen gertatutako gogoratze eta argitaratzeko konpromisoa hartu eban. Urteotako bidean, Udalak Aranzadi Zientzia Elkartea izan dau bidelagun eta Aranzadiren ekarpen zientifiko eta adituagaz egin dira ikerketa lan guztiak. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzatik be laguntzea jaso dabe.

"Urte honeetan batez be landu dogun alderdia izan da ondorengo belaunaldia honen barri emotea eta gazteak hezte gure historia identifiketan. Era berean, gure askatasuna defendidu ebezan baloreak irakatsi deutseguz eta Giza Eskubideen errespetua sustatu" esan eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena* liburuaren prentsurrean egindako aurkezpenean.

1937ko maiatzaren atzen egunetan eta bagileko lehenengotan, Nafarroatik etorritako Brigada frankistak presinoa egin eban bai Arratiatik bai Durango-Zornotzatik

Bilbo okupetako bidean eta Eusko Gudarostea eta Errepublikaren aldekoak Lemoatxen geratu ziran. Astebete inguruan bataila gogorak izan ziran han; egunez frankistak konkistetan eban tontorra eta gauz galdu. Denpora horretan, Lemoatxen defenza sistema bat eregi zan, lubaki sistema bat. 2011n, lehenengo hazurrak topau ziran, hasi zan lubakiak berreskuratzeko prozesua. 2013an lehenengo Auzolandegiak egin ziran. Harrezkerotik oin arte, lubakiak errekupeau, gudarien hazurrak topau eta orduko gertaeretak objektu piloa topau dira. Horrek liburua argitaratzea eta proiektuagaz jarraitzea ekarri dau.

Argitaratzeko konpromisoa betez, zortzi urte honeetan egindako lana jaso da liburuan. Bost kapituluatan bananduta dago: "Lemoatx gudu baten historia", "Arkeologia lubakietan", "Hondakin materialak Lemoatxeko lubakietan", "Gerrako materiala Lemoatxeko gudu zelain" eta "Lemoatxen hobitik ateratakoa".

Liburua kalidatezko papelean eta ondo zaindutako edizinoan argitaratu da. Udaletxean eta liburutegian erosi daiteke. Momen-

tuz, 300 ale kaleratu ditue, baina behar izan ezker, beste tirada bat be egingo leukiela azaldu deutso BEGITURI Lemoako alkateak.

Gerra Zibilaren inguruan, ikuspegi arkeologikoagaz argitaratutako lehenengo lana da *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena* liburua.

Lemoatx aztarnategi erreferentea

Lemoatxen aparteko aurkikuntzak egin dituela dino Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteko Idazkariak. "Hemen aurkitutako objektuak, oin arte ez dira topau Euskal Herriko inongo aztarnategitan, inongo frente lubakietan edo trinxeretan. Lemoatxen lurrazpian dagoan aztarnak dira momentu honetan Gerra Zibileko Memoria Historikoari lotutako inportanteak". Horregaitik, momentu honetan, Euskal Herrian Lemoatx da erreferentea.

Lemoatxeko lubakietan aurkitutakoa aztertzen hamalau ikerlarik hartu dabe parte. Aztarnategi bat aztertzeko espezialista desbardinak behar izaten dira eta Lemoatxekoa aztertzeko ikuspegi zabala hartu dabe. Paco Etxeberria eta Lourdes Herrasti antropologo-fisikoak, lubakietan azaldutako personeren aztarnak aztertu ditue; Mikel Diego historialariak ikerketa historikoa egin dau artxiboetan egozan dokumentuak eta bizilagunen testigantzak jasoz. Arkeologia arloan, Jimi Jimenez izan da zuzendaria, bere arkeologo taldeagaz, Alba Peña eta Julian Blancogaz, hain zuzen. Aurkitutako materialak, Euskal Prospekzio taldekoak aztertu ditue.

Liburuan, hildakoak nortzuk diran, zelan industu dan eta abar azaltzen da. "Argazki ikusgarriak dagoz, azaldu ziran moduan. Ez dogu ezelangoz zentsurarik egin, hazurrak

agertzen badira holan plazaratu egin dira, euren objektu personal guztiakaz" azaldu eban Juantxo Agirrek aurkezpenean.

Lubakiak informazio iturri

Gerra materialaren dispersinoak soldadu bat egoan leku zehatza adirazo eta lubakietan topautako objektuak, trinxeretan egiten zan bizimoduaren barri emoten dabe. Harrigarria bada be, elementu organiko asko konserbau dira eta uniformeak joka bat eta gudari baten txapela berreskuratu ditue. "Hau apartekoa da, gudari baten txapela osorik mantentidu eta barriztutea. Udalak oihaletan espezialista dan batengana jo dau. Lubaki berean joka bat agertu zan. Pinudiko lurraz azidotasun handia izan arren, modu harrigarrian konserbau dira. Euskal Herrian, Gerra Zibileko arkeologian topau diran uniformeak elementu bakar biak dira" azaldu eban Jimi Jimenez Arkeologia zuzendariak. Testuinguru honetan topau, barriztu eta publikau diran bakarrak dira.

Lubakietan topautako beste objektu batzuk, munizinoz betetako kartutxerak dira. Narruzkoak dira, metalezko errematxeakaz, ondo konserbata. Munizino paketeak be konserbau dira. Euretako baten fabrikazino urtea be agertzen da, 1934. "Pentsau egizue zer dan arkeologia talde batentzat objektu

bat topatzea eta bertan agertzea zein urtetan eta zein fabrikatan eginda dagoan".

Baioneta bat, ondo konserbatako narruzko bota bat, garriko baten belarria Euskadiko Gobernua- ren armariagaz, bizarra egiteko brotxak, hortzak garbitzeko eskubilak, botika ontziak... dira lubakietan topautako beste objektu batzuk. "Brotxa bat batuz, egunkari zati bat be aurkitu genduan. Bilboko El liberal egunkariko zatia da. Iker-tzaileak konprobau dabe egunkaria, urtea, orrialdea eta zer ipinten eban zati horren inguruan" dino Jimenezek.

Inbentariautako Ondasun Kulturala izateko eskakizuna

Lemoako Udalak, Eusko Jaurlaritzari Lemoa Inbentariautako Ondasun Kultural izentatzeko eskatuko deusala esan eban alkateak eta Memoria Historikoaren alde beharrean jarraituteko konpromisoa berretsi eban. "Argi daukagu instituzino publikoak, aitortpena, justizia eta erreparazioa egiteko konpromisoa hartu behar dogula eta Memoria Historikoaren berreskuratzeko eskatzen dauan moduan, holangorik barrero gertatu ez daiten konpromisoa. Horregaitik Lemoako Udalak bide honetan lanean jarraituko dauala argi adierazo gura dogu" esan eban Elejabarrietak.



Jimi Jimenez, Saioa Elejabarrieta eta Juantxo Agirre.

TXIRRINDULARITZEA**Itzulia Zeberio eta Arteatik pasauko da****Erredakzioa**

Euskal Herriko Itzulia apirilaren 8 eta 13an artean jokatu da. Laugarren etapan, apirilaren 11n, txirrindulariak Zeberio eta Arteatik pasauko dira.

Zeberion sartzean diranean 114 kilometro eginda izango ditue eta lasterketearen abiadurearen batz bestekoaren arabera, pasatzeko ordua desbardina izango da. Izan be, arin badoa, 42 km/h batz beste, Undurraga auzoko sprinta 16:13an izango dala kalkulau dabe; batz bestekoa 38 km/h bada barriz, 16:31n. Zeberiotik pasau ostean, Artearantza joko dabe txirrindulariak. Han, BI-3513 kaminoan, eskoierantza jo eta Bikotz Gane lehenengo mailako

mendatea igoteari ekingo deusie. Bikotz Ganen 126,8 kilometroa egingo dabe eta han, 16:25ak aldera egongo dira lasterketea arin joan ezkeredo 16:44ak aldean, astiroago badoa.

Bikotz Ganetik Orozkorantza egingo dabe txirrindulariak.

Taldeak

Guztira 23 talde lehiatuko dira 2019ko Itzulian. Euretako hamazortzi World Team edo kategoria gorenekoak dira. Beste bostak Kontinental mailakoak dira; tartean dago Euskadi Basque Country Murias. Talde bakotxean 7 txirrindulari izango da. Guztira beraz, 161 txirrindularik hartuko dabe parte. Aurtengoa Itzuliaren 59. edizioa da.

**AZKOREA****Gisasola eta Naredo sailkatu ziran Ubiden****Erredakzioa**

Ubideko frontoian jokatu zan martiaren 16an, Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketako bigarren kanporaketea. Han, hamabi azkolari neurtu ziran lehenengo, eta gero, euretako seik finalerdia jokatu eben. Lehen fasean, Lemoako Xabier Garcia "Utzu" k parte hartu

eban. Bera izan zan kaporaketa hau jokatu eban arratiar bakarra, eta ez eban lortu aurrera egitea.

Finalerdia 3 azkolariako talde bitan jokatu ziran. Azkolariak, enbor bi ebagi behar izan eben, bata 45 ontzakoa eta bestea 54koa.

A taldean, Eneko Saralegi, Ioritz Gisasola eta Beinat Lekue egozan, eta Ioritz Gisasola mallabiztarra sailkatu zan hurrengo faserako. B taldean barriz, Daniel Lopez, Luis Polanko eta David Naredo neurtu ziran. Hirugarren hau, David Naredo Asturiaskoa izan zan kanporaketa honetan txapelketan aurrera egiteko sailkatutako beste azkolaria.

MENDIA**Bueltan da Alex Txikon****Alex Txikon.****Erredakzioa**

Martiaren 26an heldu zan Bilbora eta hurrengo egunean Lemoakoak prensaurrekoa emon eban. Bertan, balorazino positiboa egin eta laster lortuko dala K2ko tontorra neguan zapaltzea esan eban. Espedizino honek, tontorra egiteko zeintzuk diran fetxarrik onenak jakiteko balio izan

deutsala dino, tontorrari ekiteko moduan arintasuna dala gakoa eta igluak egitea oso idea ona izan zala esan eban.

Oingoan ezin izan da

Martiaren 17an, gaua hirugarren kanpalekuan 7.050 metro tara emon ostean eta ikusita haizeak gogor jotzen ebala eta izoztuteko arriskuan egozala, eta udabarrirako

3 egun baino ez ziralta falta, jeistea eta saiakerea beste urte baterako ixtea ebatzi eben Txikonnek eta bere taldeak. Domeka horretan bertan, danak ondo heldu ziralta Behe Kanpalekura emon eban jakitera sare sozialen bitartez.

Eguraldi txarraz gainera, udabarrirako egun gitxi falteteak be izan eban eragina. Txikon eta bere kide batzuk K2a itxi eta Nanga Parbatent pasau eben astebete Nardi eta Ballard mendizaleen erreskate espedizinoan. Hilda topau ebezan. Bueltan, astebetetz eguraldi ona egin ezkeredo, posibletzat jotzen eban lemoztarrak tontorra egitea, baina hirugarren kanpalekura heldu ziran arren ezin izan eben aurrera egin. Orduan, 8.200 metro tara dagoan Itogunea deitzean deusien lekura ailegetea planteau zan, baina hara be ezin izan ziran joan.

Mendia ez da lekuz aldatuko

Txikonnek bertan behera itxi behar izan dau aurtan K2ko tontorra neguan zapaltzeko asmoa eta oindino inork ez dau lortu. Dana dala, danak ondo bueltau diralako pozik dagoala dino lemoztarrak eta mendiak bertan jarraituko dau ala gogora arazo dau.

ESKALADEA**Itziar Zabala nagusitu zan Eskaladako Espainiako Kopako bigarren proban****Erredakzioa**

Fuenlabradan (Madril) jokatu zan martiaren 16-17ko astegoienean. Euskal Selektzinoko kide bik irabazi eben, Itziar Zabala dimoztarrak andrazkoetan eta Mikel Linazisoro bergararrak gizonezkoetan. Zabalaren debuta izan arren aurtengo Espainiako Kopan, proba irabazteko faboritua zan eskalatazaille dimoztarrak.

Garaipen honegaz bere lesinotik guztiz osatuta dagoala erakutsi eban Zabalak Madrilan. Aida Torres kataluniarrak eta Maja Jonjic

kanariarrak osotu eben podiuma. Espainiako Kopako atzen proba,

Plasentzian (Extremadura) jokatu da maiatzaren 11n.



Orrebiako Herri Iratxeak
Gure
irastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



MENDIA

Beñat Katarainek eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Kolazinoko Mendi Lasterketea

Erredakzioa

Julen Zuberok BTTko Lasterketea irabazi eta marka ezarri eban.

Bero egin eban martiaren 23an, 24°C, eta Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan parte hartu eban igarri eban. Horri ibilbidetaren gogortasuna gehitu jakon. Aurtengoa, gogorrena izan da eta maila handikoa proba guztietan.

Mendi bizikletako lasterketan, Julen Zuberok irabazi eban proba, laugarrenez, lasterketako errekorra ezarri. Lemoakoak, ordubete eta 41 minutu behar izan ebazan proba irabazteko. Bere berbetan aurtengoa gehiago kostau jako irabazte, belaunaldi barriak eta aurreko urteko irabazleak gogortu eban lasterketea eta. Andrazkoetan, Ainara Arroyo gailendu zan ordu 2 eta 15 minutu denporeagaz, bigarrenari 10 minutuko aldea aterata.

Mendi lasterketeari jagokonez,


"oso gogorra izan da aurtengoa top hamarraren barruan sartzea, Euskal Herriko mendi lasterketen panoraman izen handiak izan ziralako Bedia" antolatzaileen esanetan. Mendi lasterkari handi bi heldu ziran helmugara lehenengo postuan. Beñat Katarain (02:07:00) eta Oihana Azkorbebeitia (02:30:54). Euskal Herriko selekzinoko kideak dira biak. Lehenengo arratiarrak Jon Aingeru Artetxe eta Onditz Iturbe izan ziran.

Giro ederra

Egun osoan giro ederra izan zan eta Bediako plazea beteta egon zan. "Lasterkari, marxista eta BTTko kide guztiak, boluntarioak emondako tratua eta egindako bidearen edertasuna eta gogortasuna goraiatu eban". Izan be, Kolazinoko Mendi Egunean 170 boluntarioren lanari esker atera zan aurrera bosgarren edizino hau.



Onditz Iturbe.



Julen Zubero.

PELOTEA

Oier Etxebarria txapeldun

Erredakzioa

Aitor Elordi eta Oier Etxebarria igorretarrak Promozino Mailako txapela lortu eban, finalean Agirre eta Salaverri 20-22 irabazi ostean.

Finala Iruñeko Labrit pelotalekuan jokatu zan martiren 30ean. Igorrekoa, aurten hasi da profesionaletan eta bere lehenengo finalean, binakakoan, txapela lortu dau Elordi bikotekideagaz.

Emoitzak erakusten dauan moduan, final estua eta gogorra izan zan. Partiduak 80 minutu luze iraun eban eta ia 700 pelotakada emon ebezan.

Elezkano finalerako sailkatuta

Danel Elezkano Dimako pelotaria



Oier Etxebarria.

eta Beñat Rezusta sailkatu egin dira binakako Txapelketa Nagusiko finalera, martiaren 23an Altuna eta Martijari 10-22 irabazi ostean. Finala apirilaren 7an jokatu dabe Bilboko Bizkaia frontoian, Iribarria eta Zabaletaren kontra.

HERRI KIROLAK

Harriti giza proba taldeak bost urte egingo ditu aurten

Erredakzioa

Denpora mugatu baten, bostehun kiloko harria garraiatuz ahalik eta distantzia luzeena egiten saiatzen dira Harriti giza proba taldeko kideak. Taldea 2014an sortu zan eta bost urte honeetan, herri kiroltan andrazkoak be jarduten dabela erakutsi dabe, baita giza probai leku bat emon be.

Zortzi persona behar dira harria garraiatzeko. Momentu honetan bederatzik osotuten dabe taldea, inoz baino gehiagok. Janire Campo, Nagore Dominguez, Ane Elordi, Ariane Landa, Bea Manchado, Izaro Mediavilla, Amagoia Santacoloma, Ane Uriarte eta Inma Valiente dira Harriti taldeko kirolariak. "Hasieran zazpi ginan, gero zortzi eta oin bederatziz. Beti

dago ondo jente gehiago etortea baina pozik gagoz" azaldu deutso BEGITURI Ariane Landa Harritiokoak.

Zeanuritik Arteara

Harriti Zeanurin sortu bazan be, beti Arratiako taldea izan dala dino Landak. Arratia eta ingurukoa, Zornotzako hiru partaide be badagoz-eta taldean. Lehenengo urteetan Zeanuriko probalekuan egiten ebezan entrenametuak baina abenduaren 18tik Arteako probalekuan entrenetan dira. Harria arrastetako astean behin batzean dira. "Gero baktza bere aldetik entrenetan da gimnasioan. Arteako Udalak gimnasiaorako txartelak emon deuskuz, Artean entrenetaren".

Entrenatzailek ez daukie baina erakustaldietan Jaime Atxaren laguntzea izaten dabe.

Erakustaldiak

Martiaren 8aren inguruan hainbat lekutatik deitzean ditue eta aurten be, erakustaldiak egin ditue martiaren 9an Zornotzan eta 10ean Ugaon. Hurrengo erakustaldiak maiatzean izango ditue. Maiatzaren 5ean Areatzan egongo dira eta 17an Bilboko Zurbaránbarrin.



Apirilaren 13an

KORRIKA

ARRATIAN

Lemoa.....	21:15
Igorre.....	22:00
Dima.....	22:30
Arantzazu.....	23:00
Artea.....	23:15
Areatza.....	23:30
Zeanuri.....	23:45
Barazar.....	00:45
Otxandio.....	01:30



Klika
aek
21. korrika
2019ko apirilaren 3tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

DIMETAL

Bonfire eta Destruction izango dira kartelburu V. Dimetalfesten**Erredakzioa**

Dimako heavy musikako jaialdiaren bosgarren edizioa urri lehenengoaren 27 eta 28an izango da eta antolakuntzak emon ditu jakitera euren parte-hartzea konfirmatu daben 23 taldeen izenak. Bonfire eta Destruction talde alemaniarrek izango dira aurtengo kartelburuak.

Childrain, Boneflower, Soldier, Koma, Trallery, Rise To Fall, Legen Beltza, El Altar del Holocausto, Insaniam, Orion Child, Knives, Balmog, Hex, Strikeback, Fear Crowd, The Broken Horizon, Leyenda, Misanthropy, Elbereth, The Eleventh Plague eta Uckaiá hardcore melodikoa egiten dauan talde arratiarra dira taldeok.

Aurten, hiru eszenaleku izango ditu Dimetalfestek, euretako bi karpa handi biren azpian. Honek aforoa mugatua izatea ekarri dau. Sarrerak 25 euroko prezioa daukie; takillan erosi ezker, 30 euro.

Bonfire eta Destruction

Oin dala 47 urte Hans eta Karl Ziller gitarrajoleak Cacumen hard

rock taldea sortu eben eta 1986 urtean, Bonfire izena hartu eben. Hurrengo urtean, 1987an, taldea mundu osoan ezaguna egin eban *Fireworks* diskoa kaleratu eben. Diman euren karrera luzeari errepaso emoteko asmoa daukie.

Beste kartelburuari jagokonean, thrash metaleko Destruction taldea, 1982an sortu zan, Knight of Demon izenagaz. Hamahiru disko ditue kalean, *Infernal Overkill* (1985) izan zan lehenengoa eta *Under Attack* (2016) azkena.

Azken Gaua Infernuan

Baina ez da urri lehenengora arte itxaron beharko Diman heavy metala entzuteko. Izan be, antolatzaileak apirilaren 30ean, 21:00etan, Abaroa Aretoan, Azken Gaua Infernuan izenpean hiru talderen kontzertua antolatu dabe. Han egongo dira Gernikako death metal egiten dauan Bullets of Misery taldea; oin dala gitxi Bilbon sortutako Crucifucked taldea eta Arrigorriagako Fetitxe taldea. Kontzertuak bost euroko prezioa izango dau eta dirua Dimetalfest finantzietan lagunduteko izango da.



LEHIAKETE

Dimak jaietako kartelerako Irudi Lehiaketea antolatu dau**Erredakzioa**

Dimako Jai Batzordeak Jaietako Kartelerako Irudi Lehiaketea antolatu dau. Proposamenak maiztaren 3ra arte aurkeztu daitezke udaltxean edo kultura.dima@bizkaia.org helbidean. Kartelak Dimako jaiak 2019 bagilaren 27tik 30era testua izan behar dau.

Irabazlearen izena maiztaren 10ean emongo da jakitera udaltxeko tabloian eta udal webgunean. Saria bi lagunentzako afora izango da Dimako taberna baten.

Jaietako argazkiak batzean

Jai Batzordeak beste urte batzuetako argazki erakusketea eta proiektzioa egin gura dau aurten sanpedroetan. Hori dala-eta, herritarrai, edozein urtetako sanpedroetako argazkiak, zuri-baltzean edo koloreetan, ixteko eskaria egiten deutse.



LABURBIRA

Laburbira Igorreko Lasarte Aretoan apirilaren 11n**Erredakzioa**

Euskerazko bederatzi film labur, 2016 eta 2018 bitartean egin-dakoak, ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan, hilaren 11n, 20:00etan. Zertu Kultur Elkarteak antolatu dau emonaldia Igorreko Udalaren laguntzeagaz.

Ordubete inguruko saioan, maitasun istorioak, tensino bizikoak, animazinozko lan bi, iraganeko kontakizunen bat, Behe Nafarroko istorio bat, majia, intriga eta umorea eskaintzen ditu

Laburbirak. Honeek dira Igorreko Kultur Etxean ikusi ahal izango diran filmak: Arrate Fernandez zuzendariaren *Begi-ninien ko-reografia*; Miren Mujikaren *Shell Phone*; Irati Muruaren *Zapatak*; Josu Martinezen, *Ama*; Arantza Ibarren *June*; Maddi Barreneitea eta Marta Teijeiraren *Hotzean garbitu*; Iker Maguregi eta Andre Martinezen *Ilunpean*; Ane Zuazubiskarren *Erroak* eta Laida Ruizen *Handiak eta txikiak*.

Diman eta Areatzan be proiektu ziran martiaren 29an.

URTEURRENA

Bosgarren urteurrena ospatuko dau Kiñu Gaztetxeak**Erredakzioa**

Urteurren jaiak apirilaren 6an izango da, baina egunaren aurretik eta ondoren be antolatu ditue ekintza batzuk bosturtekoa ospatuteko.

Urteurren jaiaren bezperan, apirilaren 5erako, zunbatoia eta jantza aktiboa antolatu dabe edade guztietako jentearentzat gaztetxeok. Arrastiko 17:30ean izango da eta hiru euroko prezioa izango dau. Batutako dirua urtean zehar egiten diran ekintzetarako izango da. Ondoren, iluntzeko 20:00etan, *La crisis del plástico a través de la fotografía* berbal-dia emongo dau Miguel Sanchez-Moñita argazkilaria eta irakaslea. Hilaren 12an, boxeo erakustaldia egongo da Gaztetxeok beheko pisuan, arrastiko 18:30ean.

Urteurren jaiak

Apirilaren 6an, zapatuan, jai giroa igariko da Igorren goizetik hasita. Izan be, gaztetxeok, Arratiako sortzaileen azokea antolatu dabe Agirre Lehendakari kalean 11:00etatik aurrera. Bertan, Kirru taldeak kontzertu akustikoa eskainiko dau.

Gauean, kontzertuak egongo dira 22:00etatik aurrera. AC/DC taldeari tributo egiten deusan Debases taldeak, La Txirla Records, La Polla Records taldearen tributo taldeak eta DJ Technorolak ipiniko ditue jantzan Kiñu Gaztetxearen urteurrena ospatutea hurreratzan diranak.

Olaetxe
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Salino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goiztiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili~Kili
Antzoki eta Kultur Etxea
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 - 506 854 018

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

BERTSOLARITZEA

Arratia BBK Sariketarik kanpo geratu da

Arratia Institutuan jokatu zan Bertsolari Gazteen BBK Sariketearen bigarren kanporaketea martiaren 14an. Arratiakoak Hego Uriberen kontra neurtu ziran. Hego Uribeok izan ziran irabazleak eta sariketan aurrera egin ebenak.

Erredakzinoa

Kategoria bi egon ziran. Alde batetik 18 urte artekoak neurtu ziran eta bestetik 18 eta 25 urte bitartekoak. Gero, kategoria bakoitzeko puntuazioak batu ziran. Arratiakoak 285,5 puntu lortu ebezan; Hego Uribeok 374.

Arratiako taldea, gazte mailan, Unai Intxaustik, Ekhi Burgoak eta Izaro Mazok osatu eben. Nagusietan, Urko Iurrebasok, Oier Mendiolagoitiak eta Amaieur Atxak osatu eben hirukotea. Gai jartzailea Zihara Enbeita izan zan.

Taldekakoan be Arratiakoak ez dabe aurrera egin

Aramotzetik Itxineran Arratiako taldea ez da hurrengo faserako sailkatu Bizkaiko Taldekako Txapelketan. Igorren jokaturako hiru saioetan, Arratiakoak, Santutxuko Otsoa & Co. eta Berriz-Elorrioko Miotako bidelapurak-egaz neurtu ziran. Berriz-Elorriokoak dira hu-



rengo faserako sailkatu diranak.

Ezkiña tabernan, Santutxokoak eta arratiarrak neurtu ziran. Gai jartzailea Amaia Ugalde izan zan eta kantuan, Santutxutik, Oihana Bartra, Garazi Navarro eta Ibon Ajuriagogeaskoa ibili ziran; Arratiatik barriz, Iñaki Iturriotz, Amaieur Atxa eta Illart Gumuzio.

Bigarren saioa, Erroitz-Trokako terrazan jokatu zan. Han Santutxukoak eta Berriz-Elorriokoak neurtu ziran.

Hirugarren saioa Axular Herriko Tabernan izan zan. Arratiako taldeak, Berriz-Elorrioko taldea izan eban aurkari. Iruri Altzerreka, Miren Amuriza eta Gorka Lazkano, Miotako lapurrak nagusitu jakien Arratiakoak. Gai jartzaile Urtzi Urrutikoetxea ibili zan. Epailan, Juanjo Respaldiza, Fernando Otsoa eta Joxe Garaizabal. Giroa alaituten egon ziran, Orozkoko Irati eta Garazi Santa Cruz trikitixa eta panderoagaz.

ZINEKLUBA

Hirokazu Koreeda zuzendariaren film bat Igorreko Zineklubean

Erredakzinoa

Hirokazu Koreeda zuzendari japoniarraren atzen pelikulak Bilboko zine aretoak betetea lortu eben. Horixe gertatu zan *Nuestra hermana pequeña* (2015), *El tercer asesinato* (2017) edo-eta *Un asunto de familia* (2018) pelikulakaz, esate baterako. Koreedaren kontetako modu bereziak ikuslearen jakinmina bizten dau eta arreta osoa ipini behar izaten da personajeak gordeten daben misterioa argituten dan arte. *Un asunto de familia* Cannesko Zinema Jaialdiko Urrezko Palma irabazi eban igaz.

Oingoan zineklubak *De tal padre, tal hijo*, 2013ko pelikulea eka-

rriko dau apirilaren 4an, Igorreko Lasarte Aretora. Pelikula honetan, Ryota ejekutibo oldarkorra, Midori bere andreagaz eta sei urteko semeagaz bizi da. Egun baten familiak dei bat jasoten dau ospitaletik esanez umearen jaiotza egunean akats bat gertatu zala eta euren semea beste ume batez aldatu ebela esanez. Orduan, Ryotak eta Midorik zerk definituten dauan guraso eta seme-alaben arteko loturea eztabaidatzeari ekin beharko deutsie. Hau da, genetikak ala giroak? odolak ala afektuak?

Ryotaren papela Masaharu Fukuyama, fama handiko musikari, konpositore eta aktoreak egiten dau.



DUNBA

Andrak tinko

Martiak 8 egunero da.

Dimako Ugarana ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Gu Dimako eskolako 6. mailako ikasleak gara. Oin dala gitxi Emakumeen Eguna ospatu genduan eta hori dala eta andrakaz erlazioautako Dunba egitea ebatzi dogu. Baina ez zan Emakumeen Egunean hasi Dunba hau idazteko gogoia.

Ikasturte honetan proiektuen bidez egin dogu lan eta gure lehenengo proiektua Europa izan zan.

Irakasleak guk aukeratutako herrialdeko lau persona ospetsu aukeratzeko eskatu euskun eta orduan ohartu ginan persona ospetsuak bilatzerakoan agertzen ziran gehienak gizonezkoak zirala. Andren bila genbilzala *Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes* liburuagaz topo egin genduan, irakurri genduan eta andra interesgarri eta errebelde

asko ezetu genduzan eta euren inguruko *lapbook* batzuk sortu genduzan.

Geroago zientzia proiektuan murgildu ginan, zientzialari ospetsuak bilatzen genduzanean beti gizonezkoak agertzen ziran. Horrek esan gura dau gizon zientzialari gehiago dagozala andrak baino? Ez jakina, eta orduan andra zientzialariak bilatzen hasi ginan.

Andra zientzialariak eta garrantzitsuak bilatzen hasi ginan, orrialdeak pasatzen gengoanean andra esanguratsu asko ikusi genduan.

Horretan genbilzala zezeilairen 11n Emakume eta neska zientzialarien nazinoarteko eguna dala ohartu ginan. Bilduta geunkan informazio guztia, laburtu eta eskaileretan zehar ipini genduan andra zientzialari bakoitzaren informazioa. Garrantzitsua iruditzen jaku, bidetik hainbat datu lortu genduzala, baina arreta handiena deitu euskuna izan zan, andra zientzialari batzuei gizonezkoak euren aurkikuntzak lapurtu eta meritu guztia eroan ebela.

Laster heldu zan martiaren zortzia eta andra eta gizonen arteko desbardintasanaren eta eraso sexisten inguruan egin genduan berba. Dimako eskolan egun horretan greba egin genduan bardintasanaren alde.

Horregaz batera gure eskaileretako ideari jarraipena emon geuntsan eskola guztiaren artean zenbat andra esanguratsu dagozan erakusteko eta euren bizitzan zehar egin dabezan lanak jakiteko, soldatadunak edo soldata

bakoak.

Hilabete honeetan andra askoren bizitza ezetu dogu, eta andrazko gehiago ezetu gura doguz.

Gure ustez munduan andrazkoa sano baztertuta eta desbardin dago, soldata aldetik gizonai askoz gehiago ordaintzen deutsee, kantak gero eta matxistagoak dira eta holan ezin da jarraitu. Burruka egin behar dogu.

Bardintasanaren alde eta andrazkook ikusgai izan gura dogu.

Gora emakumeon borroka.



Emakume eta neska zientzialarien nazinoarteko eguna.



AGENDEA

APRILAK 2 ARTEA

Parke Osasungarri Programan izena emoteko epea zabalik apirilaren 12ra arte. Udaletxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, maiatzaren 4an, Mendexa Park Abentura Familia urtekerako Bediakoentzako izen emotea zabalduen da. Liburutegian.

18:00etatik 19:00etara, Umeen Irakurle Kluba. Francisco Castoren *Sinbad deitzen zidan* liburua. Julen Gabiriaren eskutik.

IGORRE

Apirilaren 28tik maiatzaren 7ra arteko Fiteroko bainuetxean egonaldi eta tratametuertarako izena emoteko atzen eguna jubilatuen txokoa.

Apirilaren 13ra arte, Txillardegiri buruzko erakustaldia herrian zehar.

ZEBERIO

Hilaren 10era arte, izena emon daiteke apirilaren 13ko Ongi Etorri Errefuxiatuak Zeberio antolatutako bazkarian. Nagusiak 10 euro, umeak 5. Herriko dendan, Batzokian, Herriko Tabernan, Ermitabarrin eta Arteako Herriko Bentan.

Hilaren 21era arte, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Petrtegi sagardotegira urtekerarako izena emoteko epea zabalik. Zeberio tabernetan.

APRILAK 3 IGORRE

18:30ean, kartelak egiteko tailerra Axular Herriko Tabernan.

ZEANURI

15:00etan, Korrikan ibiliko diran lagun berbaldua eskolan. FurgonetEROAK; 19:15ean, Korrika Batzordeko batzarra Kultur Etxean.

APRILAK 4 IGORRE

20:00etan, zinekluba, Hirokazu Koreedaren *De tal padre, tal hijo* Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:30ean, Lemoako Haur eta Gazteen XVII. Ipuin Lehiaketako sari banaketea Liburutegian.

ZEANURI

16:50ean, Korrikaren hasikereagaz bat herriko plazan.

19:30ean, Ahoztar Zelaietaren *La trama del 4%* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean. Laratzu Kultur Elkarteak antolatuta.



antolatutako *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroa jubilatuen egoitzan.

18:00etatik 21:00etara, serigrafia ikastaroa Torontilaren eskutik. Mataderoan.

20:00etan, *Ouvrez les frontières* kantuaren bideo klip kolektiboaren grabaketea Herriko Bentan OEEren eskutik.

IGORRE

Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek mahai informatiboak ipiniko ditu, maiatzaren 5ean Durangon egingo dan Euskal Herriaren Besarkada ekintzearen barri emoteko.

17:30ean, alkartasun zunbatoia eta jantza aktiboa; 20:00etan, *La crisis del plástico a través de la fotografía* berbaldua Kiñu Gaztekearen urteurrena dala eta.

18:00etatik 20:00etara, Andren Jabekuntza Eskolako *Autoconocimiento y autoestima* ikastaroa Inma Merino de Castoren eskutik.

ZEANURI

Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek mahai informatiboak ipiniko ditu, maiatzaren 5ean Durangon egingo dan Euskal Herriaren Besarkada ekintzearen barri emoteko.

APRILAK 6 AREATZA

08:30ean, AKKBk eta Lamino Kirol Klubak antolatuta, mendi ibilaldia eta sagardotegira urtekerea. Ibilbidea: Artaun-Belatxikieta (758 m.)-Zornotza. 10 kilometro.

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, herritarrek zientzia hasteko tresnak: Parketxearen inguruan "Carrantia"ren eskutik. Publiko orokorrari zuzendutako ekintza. Hegaztien inguruan izango da. Izena emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonon.

11:30ean, motorzaleen topaketea; 12:00etan, ibilbidea; 13:30ean, tabernetatik ibilbidea eta taberna laguntzaileetan jatekoa eta Moonshine Wagon taldearen kontzertua; 15:00etan, senidetatsun bazkaria, sagardotegiko menua; 17:30ean, kontzertua The Priest is Back taldeagaz.

ARTEA

22:00etan, Lihertaldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian. Korrika Kulturalaren barruan.



Udabarriko Abesbatzen kontzertua Zeanurin

Apirilaren 6an, 19:00etan, Zeanuriko Andra Mari parrokan, Zeanuriko Abesbatzak, Urduñako Abesbatzak eta Santurtziko Ahots Zuriak Abesbatzak kontzertua eskainiko dabe, Udabarriko Abesbatzen kontzertu zikloaren barruan.

Taldea osotuten daben hiru abesbatzok, hiru kontzertu emongo ditue, kontzertu bana abesbatz bakotxaren herrian, hain zuzen be. Hirurretan lehena Zeanurikoa izango da; hurrengo Urduñan, maiatzaren 10ean. Santurtzikoaren data konfirmatu barik dago.

Zeanuriko Abesbatzak 22 urte beteko ditu aurten.



DIMA

13:00etan, Axpe Goikoa jatekxan Txakolin Festa.

IGORRE

Kiñu Gaztekearen urteurrena. 11:00etatik 15:00etara, Arratiako sortzaileen azokea; 12:00etan, Kirru taldea; 22:00etan, Debases eta La Txirla Records taldeen kontzertuak eta DJ Technorola.

22:00etan, zinea *Mula* Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00etan, Igorren eta 08:10ean, Lemoan. Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea sagardotegira. Urdaburu (599 m.) Landarbaso-Ugaldetxo.

ZEANURI

11:00etan, *Barrua lantzeko* tailerra Urko Arozenaren eskutik Eguzkiolan.

APRILAK 7 IGORRE

17:00etan, zinea *El niño que pudo ser rey* eta 19:30ean, *Mula* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

07:30ean, plazan. Austarri Mendi Taldearen urtekerea. Usategieta-Zuparrobi-Ireber-Aldatz.

Txubelasu Guraso Elkarteak antolatuta, herri kirolak, paella herrikoia eta txokolatea. Nagusiak 10 euro, umeak, 6. Izena emon Mariviren dendan, Batzokian edo Herriko Tabernan.

APRILAK 8 ARRATIA

Gasteizera, Korrika amaierara, joateko autobusa Igorreko Kubulu euskaltegian. Izena hilaren 9 eta 10ean be emon daiteke. 8 euro.

ARTEA

"El Taller de las niñ@s" Kolonbia, Italia eta Euskal Herriaren arteko proiektu solidarioa Arteako eskoleagaz alkartuko da Arteako eskolako hezkuntz proiektua ezetuteko asmoz.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Gazteentzako Europako biatzean izena emoteko epea zabalik. 2002 eta 2003an jaiotakoak lehentasuna izango dabe.

APRILAK 9 ZEANURI

19:00etan, *Ongi etorri* dokumentalaren aurkezpena, proiektzioa eta eztabaidea.

APRILAK 10 ZEANURI

Korrika Txikia eskolan hasi eta plazan amaituko da.

APRILAK 11 ARTEA

19:00etan, Kolonbiako bake prozesuaren gaineko berbaldua, *Mujeres invisibles* gerrilla kide ohi eta irakasleen eskutik Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, Laburbira euskerazko film laburren emonaldia Kultur Etxean.

LEMOA

19:30ean, Ahoztar Zelaietak *La trama del 4%* liburuaren aurkezpena dau Karabie Gaztekean.

APRILAK 12 ARANTZAZU

19:30ean, NKT (Nafarroako Kanta Taldea) Taberna ibiltaria.

ARTEA

12:00etan, Arteako eragileen eta herritarren arteko Korrika Txiki eskolatik urtenda.

17:30etik 19:00etara, Jubilatuen alkarteak antolatutako *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroa jubilatuen egoitzan.

18:00etatik 21:00etara, serigrafia ikastaroa Torontilaren eskutik. Mataderoan.

20:00etan, Bilboko konboa (gospel, euskal abestiak, soul...) Kultur Etxeko Areto Nagusian.

BEDIA

Korrika Txiki Bediatik. 17:00etatik 18:30era, tailerrak; 18:30ean, Korrika; 19:30ean, kopaua.

DIMA

Korrika Txiki eskolan, 19:00etan, bideo emonaldia *Txillardegiren Klika*; 20:00etan, bertso poteoa Aitor Sarriegi eta Beñat Ugartebeagaz.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Andren Jabekuntza Eskolako *Autoconocimiento y autoestima* ikastaroa Inma Merino de Castoren eskutik.

18:30ean, boxeo erakustaldia Kiñu Gaztekeko beheko pisuan.

LEMOA

16:30ean, Korrika Kulturala, familientzako ikuskizuna. Korrika Txikia eskolan eta tailerra material birziklatuagaz.

ZEANURI

19:00etan, Joseba Sanchezen berbaldua *Euskalzaletasuna hiltzerian?* Eguzkiolan.

ZEBERIO

15:00etan, Korrika Txikia Ermitabarritik eskolara; 16:00etan, txokolatea eskolan; 17:00etan, *Aioko* txotxongilo antzerkia Zurrunka Teatrotan eskutik plazan; 19:00etan, txitxi-burruntzia plazan.

20:00etan, Bertoko Bola Txapelketako saioa.

APRILAK 13 ARRATIA

Korrika Arratiatik. 21:15ean, Lemoa;

22:00etan, Igorre; 22:30ean, Dima; 23:00etan, Arantzazu; 23:15ean, Artea; 23:30ean, Areatza; 23:45ean, Zeanuri.

ARANTZAZU

17:00etan, Korrika Txiki; 18:30ean, trikipotea EinGO taldeagaz eta afari-merienda plazan. Gero danok Korrikara.

AREATZA

17:00etan, umeentzako tailerrak; 19:30ean, Areatzako Batucakb batukada taldea herrian zehar; 22:00etan, parrilladea plazan; 23:30ean, Korrika heltzean da; 24:00etan, erromeria plazan.

ARTEA

18:00etan, antzerkia *Zu eta ni sudurluze bi* plazan edo Kultur Etxean, eguraldiaren arabera; 21:00etan, euskal karaokea; 23:16an, Korrika heltzean da.

DIMA

14:30ean, Korrika bazkaria; 17:00etan, umeentzako jolasak; 18:00etan, Kitu musika taldea; 19:30ean, txitxi-burruntzia; 24:00etan, txokolatea eta Desore taldearen kontzertua Abaroa Aretoan.

IGORRE

19:00etan, Taberna ibiltaria Gau Loratik hasita kalejirea; 20:15ean, Kultur Etxeko plazan mokautxo eta amaiera Taberna ibiltariari; 21:49an, danok Korrikara.

LEMOA

Iluntzean beroketa jolasak Korrikarako. 23:00etan, Beta Brothers Dj-ak.

ZEANURI

12:00etan, "olinpiadak" plazan; 18:30ean, Xaiborren disko festa; 21:00etan, Korrika afaria jubilatuean; 23:30ean, Korrika; ostein, DJ-KI plazan.

ZEBERIO

Ongi Etorri Errefuxiatuak Zeberio antolatuta, alkartasun bazkaria plazan. 11:00etan, jolasak; 12:00etan, antzerkia *Sandiaren jira bira*; 13:00etatik 14:30era, murala, auzolana eta musika; 15:00etan, bazkaria eta bingo musikatu eskola zaharretan.



APRILAK 14 BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea. Jokano-Montemayor (1.104 m.)-Repiko (1.188 m.)-Arriano.

IGORRE

17:00etan, zinea *Como entrenar a tu dragón* eta 19:30ean, *70 Binladens* Lasarte Aretoan.

APRILAK 15 BEDIA

16:30etik 19:30era, maiatzaren 4an, Mendexa Park Abentura Familia urtekerarako Bedian erroldatuta ez dagozanak izena emoteko eguna. Liburutegian.

IGORRE

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta, 7-12 urte bitartekoentzat, Munduari Jira Bira! kulturartekotasuna landutako jarduerak.

APRILAK 5 ARTEA

17:30etik 19:00etara, Jubilatuen alkarteak

AKI MI KO

K a i l o R e n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baserri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m² ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia

gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mula* filmarako.

Pili Munarriz (Lutxana)
Alazne Ziarrusta (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *70 Binladers* filmarako.

Iosu Murgia (Artea)
Elias Artabe (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-IG
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
analia utako orbera

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietza, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Tel: 94 631 52 83
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Ezarra egin eta bukanduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

BATXILERGOA



El Carmelo

ikastetxea - Amorebieta

El Carmelon, 1967. urtetik batxilergoa irakasten da

ERE ITEN

Kristau Eskolaren batxilergoa Amorebietan

**GIZA ZIENTZIETAKO
BATXILERGOA**






**ZIENTZIETAKO
BATXILERGOA**





MODALITATEAK




Kristau Eskolaren batxilergoa Amorebietan

Arratiatik eskola garraioaren aukera

- Arreta pertsonalizatua 
- Tutoretza biziak eta egokituak 
- 50 urtetik gorako ibilbidea 
- Balioetan oinarritutako heziketa 
- Instalazio eta ikasteko gune erosoak 

- Unibertsitatera bideratutako kalitatezko heziketa 
- Eleanitza (euskera-gaztelera-ingelera-alemaniera) 
- Batxilergo Duala: gure batxilergo eta American High Schoolen agiriak lortzeko aukera 
- Irakasle adituak eta pedagogikoki berritzaileak 

Ingelera, ikastetxeko egoitzetan,
British Councilen laguntzarekin



www.elcarmelo.eus

Kalbario Plaza 4, 48340 Amorebieta (Bizkaia)

colegio@elcarmelo.eus

Tel: 94 673 09 02

**KRISTAU
ESKOLA**



CARMELOTAS DESCALZAS

